

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Asisko San Frantziskoren eliza dagoen funtsa Vitoria-Gasteizko elizbarrutiari eskualdatzea, gerora Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioaren esku uzteko

Zaramagako 15. Poligonoaren plan partzialak — 1966ko ekainaren 28an onetsi zen — “parrokia-zentroa” jartzeko gorde zuen “A azpipoligonoko” lurzati bat, zeinaren jatorrizko lursailak oso-osorik udalaren jabetzakoak baitziren.

Egin beharreko birpartzelazioaren aurretik, eta gotzaindegiak parrokia-zentroa “azkar erai-
kitzeko” asmoa zuenez, 1968ko urtarrilaren 13ko Osoko Bilkurak erabaki zuen gotzaindegiari
baimena ematea plan partzialean parrokia-elizarako aurreikusitako lursailak okupatzeko, “bir-
partzelazio-proiektua egin eta dagokion eskritura eman bitartean”.

Baimen horrekin, gotzaindegiak bere ardurapeko parrokia-zentroa eraiki zuen; udalak 1969ko
azaroaren 25ean onetsi zuen poligonoa birpartzelatzea. Horretan, 108. emaitzako lurzattia
mugatzen da, honako zehaztapen hauekin:

“108. lurzattia. Mugak: iparraldetik, Fermin Lasuen kalea; hegoaldetik, 107. lurzattia (haur-
tzaindegia); ekialdetik, oinezkoen bidea, eta mendebaldetik, irteeratik gabeko kalea. 1.620 metro
koadroko azalera du. Gasteizko gotzainari esleitzen zaio, bertan haurtzaindegia eta parrokia-eliza
eraikitzeko...” Gasteizko plan orokorraren arabera, eskola eta eliza jartzera bideratutako lurzatiak
ere doan laga beharko dira”.

Ondoren, eta gotzaindegiak eraikina osorik eraiki zuelarik, 1972ko apirilaren 18ko Osoko
Bilkurak bigarren birpartzelazio bat onartu zuen 108. lurzattia egokitu eta eraikitako eraikinaren
benetako azalera eta kokapenera doitzeko. Egokitzapen hori honela jaso zen:

“Errealitatera egokitzea. Legutianoko atearen plangintzan gaur egun duen zabalera jasotzen
da; beraz, azpipoligonoaren neurriak benetakoak dira orain. Parrokiari gaur egun okupatzen
duen neurriko lurzattia esleitu zaio”.

Aurrekoa gorabehera, birpartzelazio horiek ez ziren inskribatu, eta “A azpipoligonoa” osatzen
zuten jatorrizko bi lurzatiak udalaren titulartasunekoak izaten jarraitu zuten erregistroan.

Kultu-jarduera amaitua zelarik, 2021eko otsailaren 18an, intentzio-protokolo bat sinatu zen
Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren, Vitoria-Gasteizko Elizbarrutiaren eta
Udal honen artean, martxoaren 3ko biktimen oroimenezko zentro bat sustatu eta kudeatuko
duen fundazio bat sortzeko. Protokolo horretan honako hau ezartzen da: “Vitoria-Gasteizko
Elizbarrutiak Asisko San Frantziskoren elizaren erabilera lagako dio xede horrekin sortzen den
fundazioari, xedatzen diren baldintzetan”.

2023ko urtarrilaren 13an, Tokiko Gobernu Batzarrak aipatutako aldean arteko bigarren
intentzio-protokoloa onetsi zuen, non hau jasotzen baitzen:

“Asisko San Frantziskoren elizaren eraikina, gaur egun, ez dago gotzaindegiaren izenean
inskribatuta Jabetza Erregistroan, eta eraiki zen lursaila oraindik ere Vitoria-Gasteizko Udalaren
jabetzako da. Vitoria-Gasteizko Udalak eta Vitoria-Gasteizko gotzaindegiak konpromisoa
hartzen dute higiezinaren jabetza erregularizatzeko beharrezkoak diren izapideak egiteko eta,
ondoren, gotzaindegiak fundazioari hura erabiltzen lagatzeko.

Esku hartzen duten alderdiek planteatutako jarduketak gauzatzeko, aipatutako "A azpipoligo-noan" kokatutako lurzatiak eta higiezinak katastroan eta erregistroan erregularizatzeko izapideei ekin zitzaie; 2024ko otsailaren 1ean, egindako partzelazioa inskribatu zen, baita hasieratik Gasteizko Elizbarrutiari doan eskualdatzea aurreikusi zen erregistro-funtsa ere, besteak beste.

51512 zenbakiko funtsa da, 4 zenbakiko Jabetza Erregistroko 4964 liburukian, 1528 liburuan eta 141 orrian udalaren izenean inskribatua, jabari osoan eta partzelazio-tituluaren arabera. Katastroko partzela honi dagokio: 59570106000010001GW (azalera) eta 59570106000010002IW (sotoa).

Transmititu beharreko lurzoruari esleitutako balioa 106.704,92 eurokoa da, 2023ko uztailearen 7ko Gobernu Batzarrak behin betiko onetsitako partzelazio-proiektuan jasotakoaren arabera.

Eraikina hartzen duen funtsa erregularizatu eta Martxoak 3 Memoriagunea Fundazioa formalki eratu zen, ekarpen ekonomikoa eginda. Une honetan, "oroitzapenezko espazioa" izeneko egoitza emateko konpromisoa gauzatzeko falta da. Horretarako, funtsaren titulartasuna dohainik laga behar zaio Elizbarrutiari, eremuaren hasierako birpartzelazioan aurreikusitakoa betez.

Partzelaziotik lortutako funtsa ondare-izaera juridikoarekin kalifikatu da erregistroan, eta, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Euskal Legearen 113.2. a) artikuluan ezarritakoa aplikatuz, udal honen udal lurzoru ondarearen barruan sartu da.

2024ko irailaren 24an egindako eta dosierrean jasotako txostenean, aplikatzekoak diren lege-manuak aztertu ondoren, honako hau ondorioztatzen da: "Kontuan hartuta eskuratzailaren izaera juridikoa eta fundazioaren estatutueta eraikitako lurzatirako aurreikusitako destinoa, hau da, martxoaren 3ko biktimen errekonozimenduaren eta erreparazioaren zabalkunde orokorra eta bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzeko "oroitzapenezko espazio" gisa erabiltzea, betetzen dira hura dohainik eskualdatzea babesten duten baldintza subjektibo eta finalistak".

Erabaki hau hartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio; beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak —abendua 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127.1.f) artikuluan xedatutakoaren arabera, ondoko erabaki proposamena egiten dio Ogasun arloko zinegotzi ordezkariak hari:

Erabaki-proposamena

Lehen: Gasteizko Elizbarrutiari dohainik eskualdatzea 51512 zenbakiko funtsaren titulartasuna; 4 zenbakiko Jabetza Erregistroko 4964 liburukian, 1528 liburuan eta 141 folioan inskribatuta dago, eta 59570106000010001GW eta 59570106000010002IW katastro-erreferentziei dagokie.

Bigarrena: Alkate lehendakariari ahalmena ematea erabaki hau formalizatzeko sinatu behar diren dokumentuak sina ditzan.

Hirugarrena: Erabaki hau Gasteizko Elizbarrutiari jakinaraztea, onespina edo eragozpena azal dezan.

Laugarrena: Erabakia hamabost egunez jendaurrean jartzea, udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn argitaratuta, egoki irizitako alegazioak aurkezterik izan dadin; epe horretan alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikotzat joko da adostutako eskualdaketa.

Bosgarrena: Arabako Foru Aldundiari erabakiaren berri ematea, 1372/1986 LEDaren 109. artikuluan azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluekin lotuta xedatutakoaren ildotik.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa, dekretua eman duen organoari berari zuzenduta, hilabeteko epean, jakinarazte-

egunaren biharamunetik, eta horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa berariaz ezesten den egunaren biharamunetik, edo edozein unetan, errekurtsoa ustez ezesten den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urriaren 11n

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
JON ARMENTIA FRUCTUOSO